



Lagun Artean



2021_{eko}
memoria

Eskerak

Mundu solidarioa eraikitzeko eskuzabaltasunez haien denbora, arreta, sentiberatasuna, goxotasuna, baliabideak eta beste eskaintzen dituzten pertsona askoren laguntzari esker atera da aurrera Lagun Artean. Zuen doakotasuna eta konpromisoa eskertu nahi dizkizuegu. Esker on hau lagundu gaituzuen erakunde publiko eta pribatuentzat ere bada. Zuen ekarpenik gabe ez ginatke hainbeste jenderengana iritsiko. Eskerrik asko!



Aurkibidea

<i>Nor gara?</i>	3
<i>Zer egiten dugu?</i>	4
<i>Eguneko arreta</i>	5
<i>Egoitzen saila</i>	6
<i>Eraldaketa soziala</i>	9
<i>Sail ekonomikoa</i>	10



Zeregina

Lagun Artean Harrera Zentroa irabazi asmorik gabeko elkarte da, herri-onurakoa eta interes sozialekoa. Elizari eta Bizkaiko Caritasi lotuta dago eta **etxerik ez duten pertsoneri** eta gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri **gizarteratzen** laguntzen die. Gure lana bi ildo nagusitan gauzatzen dugu: Pertsonen **harrera eta gizarte-laguntza** eta **salaketa eta sentsibilizazio** soziala. Bilbo inguruan egiten dugu jarduera, eta, bertan, arreta espezializatuko zerbitzuak eta egoitzak ditugu. Gure esku hartzeko ereduak erdigunean kokatzen du pertsona, eta loturak sortzen ditu, topaketarako eta erlazionatzeko tokiak ahalbidetuz eta parte-hartze soziala aktibatuz.

Ikuspegia

Bidezko gizartea eta etxegaberik gabekoa eraikitzea da gure xedea. Bazterkeria dagoen bitartean, honen alde jardungo dugu:

- Bizkaian **espezializatutako esku hartzean, berritzailean eta kalitatezkoan** erreferente izateko, errealitate berrietara egokituz eta zaurgarritasun handiena duten pertsonengana zuzenduz batez ere.
- **Eremu parekidea, parte-hartze aktibokoa eta salaketa sozialekoa** izateko, eta bazterkeriaren egiturazko arazoiekin amaitzeko eragina izateko.

Balioak

- Senidetasuna
- Hurbiltasuna
- Gardentasuna
- Parte-hartzea
- Kalitatea
- Justizia soziala
- Jasangarritasuna

Taldea

	<i>Profesionalak</i>	<i>Boluntarioak</i>	<i>Bazkideak</i>	<i>Praktikak</i>	<i>TBC</i>
<i>Emakumezkoak</i>	31	29	30	15	1
<i>Gizonezkoak</i>	19	43	15	5	56
<i>Erakundeak</i>	-	-	6	-	-
<i>Guztira</i>	50	72	51	20	57



Zer egiten dugu?


Gure helburu nagusia gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen **gizarteratzea** erraztea da. Pertsona bakoitzari **laguntza sozial pertsonalizatua eta osoa** eskaintzen diogu, bere egoeren, gaitasunen eta desioen arabera. **Pertsonan Oinarritutako Arreta Eredu**tik jarduten dugu. Pertsonaren beharrak eta potentzialtasuna hautematen dituen diagnostikotik abiatzen gara eta pertsonaren eta lantalde profesionalaren artean prozesua gidatzeko Arreta Plan Indibidualizatua egiten dugu.

Esku-hartze sozio-hezitzaile indibidualizatua egiteko erabiltzen dugun metodologia **Laguntza Erlazioa** da, hau da, pertsonen gizarteratzeko prozesuan laguntzea erlaziozko loturak sortzen ahalegintzen eta haiantzako erreferenteak izaten.

Egiten ditugun **jarduerak** arriskuen prebentzioaren, kalteen murrizketaren, bizi-kalitatearen hobekuntzaren, sustapen sozio-laboralaren, genero-berdintasunaren eta komunitateko lanaren arlokoak dira. Lan hori zehaztuko ditugun hainbat proiekturen barruan sartzen da:

- **Eguneko arreta:** Irekia eta Kide eguneko arreta-zerbitzuak.
- **Egoitzen saila:** Gaueko zentroa eta egoitzak.

Jarraian, hainbat proiekturen organigrama aurkeztuko dugu:



Eguneko arreta

Eguneko Arreta Zerbitzua IREKIA

Egunean zehar **babesteko** eremu beroa da, kalean bizitzak dakarren eragina murrizteko. **Oinarrizko beharrak asetzeko** aukera eskaintzen du (kafea, beroa, garbiketa, higiena...) eta gizarte-baliabideen inguruko eta gizarteratze-prozesuei buruzko **informazioa eta orientazioa** ematen du. Gainera, **tailer sozialak eta aisialdi-jarduerak** ere egiten dira. Udalerriko etxegabe guztiei dago zuzenduta. Bilboko Udalarekin dago hitzarmena eginda.

4.877
dutxa

1.078
garbitegi-
zerbitzu

11.603
kafe

85
gizarteratze-
prozesu eginda

Gogobetetze
-indizea: 8,7

KIDE Eguneko Zerbitzua

Egonaldi luzeetarako zerbitzu integral mistoa da, gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arretarako. Intentsitate ertain eta altuko laguntza eskaintzen zaie, haien gaitasun, behar eta nahien arabera. Eguneko zentroa du eta bertan laguntza, arreta psikologikoa, jarduerak eta beste batzuk eskaintzen dira. **25 plaza** daude: hamahiru programa horretako pisuetan hartutako pertsonentzat eta hamabi komunitatean bizi direnentzat. Bizkaiko Foru Aldundiaren dago hitzartuta.

29 pertsona artatuta.
(10 emakume eta 19 gizon)
Okupazioaren % 100

Gogobetetze
-indizea:
8,4

Egoitzen saila

Egoitzen sailak **gaueko zentro batek, 17 pisuk eta baserri batek** osatutako ostatuen-sarea du. **118 bizileku-plaza** eskaintzen dira, horietatik 86 etxebizitzetan eta 32 gaueko zentroetan. 2021ean zehar, 407 pertsona hartu dituzte.




BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREKIN HITZARTUTAKO BALIABIDEAK

Bizkaiko Foru Aldundiarekin bi programa ditugu hitzartuta. Horietan **27 pertsona** artatu ditugu (7 emakume eta 20 gizon).


FOCUS programa

Egonaldi luzeetarako **egoitza-zentroa da, gizarte-bazterkeria egoera kronifikatuan dauden pertsonentzat**, eta bitzita autonomoa izateko gizarteratze-prozesua garatzeko aukera eskasak edo hutsalak dituztenentzat. Programak ostatua eskaintzen du aurretik ezarri gabeko denbora mugarik gabe, intentsitate altuko laguntzarekin eta gizarte-zerbitzuen sistemaren berezko prestazio teknikoekin. Focusek hiru solairu ditu etxe berean eta **10 plaza** guztira.



KIDE programa

Egonaldi luzeetarako **zerbitzu integral mistoa da, gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen arretarako**. Intentsitate ertain eta altuko laguntza eskaintzen zaie, haien gaitasun, behar eta nahien arabera. Eguneko zerbitzuaz gain, **13 plazako** egoitza-zerbitzua du, hiru etxebizitzatan: Betania, Mendigane eta Mendipe.



BILBOKO UDALAREKIN HITZARTUTAKO BALIABIDEAK

Gaueko zentroa

Gaueko harrera-zerbitzua da eta exigentzia baxu-ertaineko **32 plaza** ditu. **Gaua igarotzeko eremu segurua** eskaintzen du eta hainbat prestazio ditu; hala nola gaua igaro ahal izatea, higiene pertsonala, elikadura (gosaria eta afarria), gordelekua, garbilekua, premiazko arropa, wifia... Etengabe funtzionatzen du, urteko **365 egunetan**, eta egonaldia pertsonaren egoeraren arabera da. Oro har, **gizarteratzeko prozesua hastearekin** lotuta dago egonaldia luzatzea. Halaber, informazioa, orientazioa eta laguntza soziala ere eskaintzen da.

289 pertsona
(6 emakume)

11.260
gau gosari eta
afariarekin

Batez besteko
egonaldia
30,41 egun

Gogobetetze-
indizea:
7,6

Immigrazio-programa: Aize Onak baserria

Intentsitate ertaineko egoitza-baliabide hezitzailea da, gizarte-bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden gizon migratzaileak hartzeko. Baliabideak hamaika plaza ditu. Gaueko Zentroaren eta Aukeraz programako etxebizitzaren arteko zubi-lana egite du.

13 prozesu
amaituta

25 gizon

Gogobetetze-
indizea: 9,1

Kanala proiektua

Emakume etxegabeei irtenbide bat eskaintzeko programa da, adingabeak haien kargu izan ala ez. Bi etxebizitza dira eta 13 plaza daude. Intentsitate ertaineko laguntza sozio-hezitzailea du.

Okupazioa
% 84,6


20 pertsona
(9 emakume eta 11 adingabe)

Gogobetetze-
indizea: 8,8

BEREZKO KUDEAKETA DUTEN BALIABIDEAK

EMAKUME Zerbitzua

Bazterkeria-arriskuan dauden emakumeentzako intentsitate ertaineko ostatu- eta laguntza-baliabideak dira, adingabeen kargu egon ala ez. Programak bost etxebizitza eta 24 plaza ditu guztira, hamalau emakumeentzat eta bederatzi adingabeentzat. Plazetako lau Karmeldarren komunitate batean daude eta emakumeek haiekin partekatzen dute haien egunerokoa. Emakumeak gizarteratze-prozesuaren ostean haien bizitza modu autonomoan egiteko gai direnean ateratzen dira programatik.



AUKERAZ programa

Bazterkeria-arriskuan dauden gizon inmigranteentzako intentsitate ertaineko ostatu- eta laguntza-baliabideak dira. Programak lau etxebizitza ditu eta 15 plaza. Beharrezko laguntza sozio-hezitzailearekin gizarteratzeko prozesua egin ostean, pertsonak baliabidea uzten dute bizitza autonomoa eduki ahal izateko.




Eraldaketa soziala

SAREAK ETA FOROAK



Sail ekonomikoa


Diru-sarrerak



2021EKO TXOSTEN EKONOMIKOA

Erakunde publikoak	1.300.851,36
Erakunde pribatuak	162.680,00
Erabiltzaileen ekarpenak	40.747,80
Dohaintzak	150.862,00
Beste diru-sarrera batzuk	10.663,01
Guztira	1.665.804,17
Langileen gastua	1.015.205,37
Alokairuak	148.660,08
Azpiegituren mantentze-lanak	216.476,09
Zuzeneko laguntzak	153.640,95
Administrazioa eta bulegoa	36.726,35
Zergak eta finantza-gastuak	5.838,88
Aseguruak	9.872,82
Ezohiko gastuak	7.234,47
Amortizazioak	78.581,47
Guztira	1.672.236,48
Emitza	-6.432,31

Gastuak



Auditoriak:


- **Auditoria ekonomikoa:** Auren Consultores Norte S.L.
- Sare Ekonomiko Alternatiboaren eta Solidarioaren **Auditoria Soziala**

Gardentasuna:

- Lagun Arteanek webgunean argitaratzen ditu datu ekonomikoak xehetasunekin.



NOLA LAGUN DEZAKET?



Lagun Artean

Julio Urquijo 5 behea. 48014-Bilbo. Tel. 94 447 24 87

lagun-artean@lagun-artean.org

www.lagun-artean.org

Interes Sozialeko eta Herri Onurako Erakundea. Erregistroa AS.RPB.01714

